

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2017ko maiatzaren 12an aurkeztuko du

**Paris, mende amaiera: Signac, Redon,
Toulouse-Lautrec eta garaikideak**

Paris, mende amaiera

Signac, Redon, Toulouse-Lautrec eta garaikideak

- Data: maiatzaren 12tik irailaren 17ra, 2017
 - Komisarioa: Vivien Greene, Solomon R. Guggenheim Foundation
-
- **Europako funts pribatuetan dauden XIX. mendearen amaierako abangoardia frantseseko obrak ikusteko aukera paregabea da**
 - **Erakusketaren ardatz nagusiak Neoinpresionismoaren, Sinbolismoaren eta nabien errotiko berrikuntzak eta 1890eko hamarkadan estanpak jasandako goraldia dira. Erakusketan Paul Signac, Odilon Redon, Pierre Bonnard eta Henri de Toulouse-Lautrec margolarien obrak daude ikusgai, besteak beste; konposizioak kontu handiz sortzen zituzten eta, formari eta egikaritzeari dagokionez, antinaturalistak dira**
 - **Erakusketako obrak garai hartako egoera politiko eta sozial larriaren isla dira, eta barrualdeko eta kostako paisaia zoragarrien ikuspegi utopikoak erakusten dituzte, bai eta irudi introspektibo eta fantastikoak eta gizarte-bizitzako erretratu gordinak ere.**

Guggenheim Bilbao Museoa *Paris, mende amaiera: Signac, Redon, Toulouse-Lautrec eta garaikideak* erakusketa antolatu du, Parisko agertoki artistikora hurbiltze aldera. Erakusketaren ardatza XIX. mende amaierako abangoardia frantsesa da, bereziki Neoinpresionismoa, Sinbolismoa eta nabia. Izan ere, mugimendu horietako margolari garrantzitsuenen 125 obra izango ditugu ikusgai: olio- eta pastel-pinturak, marrazkiak, grabatuak eta estanpak, besteak beste.

Asaldura politikoak eta eraldaketa kulturalak astindutako garai eta tokia zen mende amaierako Paris; krisi ekonomiko luzeak eta gizarte-arazoen bultzatuta, ezkerreko talde erradikalak ugaltu ziren eta, ondorioz, atzerakada kontserbadoreak zeharo hartu zuen Frantzia 1890eko hamarkadaren bukaeran. 1894an anarkistek Sadi Carnot presidentea erail zuten, eta alsaziar eta judutar jatorriko Alfred Dreyfus armadako ofiziala bidegabe kondenatu zuten traizioagatik: herrialdea zatitu zuen Dreyfus Aferaren hasiera izan zen. Gertakari horiek agerian utzi zuten Frantzian mutur sozial eta politikoak zeudela: burgesak eta bohemioak, kontserbadoreak eta erradikalak, katolikoak eta antikerikalak, errepublikaren aurkakoak eta anarkistak. Garai estu eta egongaitz hori hainbat mugimendu artistikoren lekuko izan zen, eta mugimendu horiek, aldi berean, garaia alderdi desberdinen isla. 1880ko hamarkadaren bukaeran, artista-belaunaldi berri bat agertu zen, besteak beste neoinpresionistak, sinbolistak eta nabia barne hartzen zituen. Ordea, oraindik jardunean zeuden aitzindari inpresionisten gai berberak lantzen jarraitu zuten, hein handi batean: paisaiak, hiri modernoa eta aisialdi-jarduerak. Aitzitik, mugimendu berriek gai familiar horiek desberdin jorratzen

zituzten, ikuspegi introspektibo eta fantastikoekin, eta gizarte-bizitzako erretratu gordinak egiten zituzten.

Erakusketak abangoardia horietan sakontzen du, arreta garaiko artista garrantzitsuenetako batzuetan jarrita: Pierre Bonnard, Maurice Denis, Maximilien Luce, Odilon Redon, Paul Signac, Henri de Toulouse-Lautrec eta Félix Vallotton. Artista horien eskutik, bizitza garaikidearen une galkor bat bete-betean atzitzeko abangoardiak zuen anbizioari beste helburu batek jarraitu zion: formaren eta egikaritzearen aldetik antinaturalak ziren kontu handiz egindako lanak zituzten xede, eta ikuslearengan emozioak, sentsazioak eta aldaketa psikikoak eragin nahi zituzten. Artisten artean batzuetan jarrera kontraesankorrak zeuden arren, oihartzun unibertsala izango zuen artea sortzeko nahia zuten berdin, eta artista batzuk talde batean baino gehiagotan ibili ziren aldi berean. Orokorrean aztertuta, garai iskanbilatsu hark elkarrengandik urruntzen ziren estetika eta teoria filosofikoak uzten ditu agerian, bai eta mende berriaren atarian jazotako gertakari nahasiak marraztu ere.

ERAKUSKETAKO IBILALDIA

305 aretoa: Neoinpresionismoa

Neoinpresionistek Parisko zortzigarren (eta azken) Erakusketa Inpresionistan egin zuten debuta talde gisa, 1886. urtean, Georges Seurat lider zutela. Urte hartan bertan, Félix Fénéon arte kritikari eta artista horien defendatzaile sutsuak “Neoinpresionismo” terminoa sortu zuen artikulu batean. Seurat oso gazte hil zenean, Paul Signac-ek hartu zuen bere lekukoa mugimenduaren aitzindari eta teorialari gisa. Neoinpresionista nagusiei —Henri-Edmond Cross, Maximilien Luce, Seurat eta Signac— inpresionista izandako Camille Pissarro batu zitzaie, baita antzeko pentsamoldea zuten inguruko herrialdeetako zenbait artista ere, Théo van Rysselberghe margolari belgikarra, esaterako. Margolari berritzaile horiek koloreari eta pertzepzioari buruzko teoria zientifikoak erabili zituzten obra puntillistetan efektu optikoak sortzeko; izan ere, artelan horiek zientzialariek garatutako metodo optiko eta kromatiko berriak zituzten inspirazio iturri. Alde horretatik, Michel-Eugène Chevreul kimikari frantsesaren teoriak, *De la loi du contraste simultané des couleurs et de l'assortiment des objets colorés* (1839), eta Ogden Rood fisikari estatubatuarren *Modern Chromatics* (1879) argitalpenak garrantzi handia izan zuten.

Pintura-teknika moderno eta iraultzaile horren bereizgarri nagusia hau zen: banakako pigmentu-pintzelkadak egiten zituzten bata bestearen ondoan, eta tonu bizi bakar bat agerrarazten zuten. Horrela, kolore osagarriak eta forma ezetsuak baliatuta, neoinpresionistek konposizio bateratuak egiten zituzten. Inguruko baldintzen arabera argiak kolorearengan zuen eragina irudikatzea zen artista horien kezka nagusia: argia uretan errefraktatua, baldintza atmosferikoek iragazia edo zelai batean barreiatua. Neoinpresionista gehienak ezkertiarak ziren, Pissarro edo Lucek egindako langile-klasearen irudikapenetan, esaterako, agerikoa denez. Sozialismo anarkistaren gaineko ikuspegi idealizatuak ere sarri agertzen ziren neoinpresionistek irudikatzen zituzten agertoki utopikoetan; izan ere, beren lanek eduki ideologikoa eta teoria teknikoa bateratzen zituzten maiz. Halere, neoinpresionistek ez zuten helburu esplizituki politikorik: hiri, aldiri, itsasertz eta landen gaineko interpretazio argitsuetan armonia bilatzen zuten.

306 aretoa: Sinbolismoa

Sinbolismoa mugimendu literario gisa sortu zen 1880ko hamarkadan, eta ideia nagusiak Jean Moréas poetak laburtu zituen 1886an, *Le Figaro* egunkari frantsesean argitaratutako “Manifesto sinbolista” idazkian. Alabaina, hizkuntzaren filosofia idealista eta ezaugarri formalak laster hedatu ziren ikusmen-arteetara. “Sinbolismo” terminoa xede antinaturalista berberak zituzten hainbat artista izendatzeko erabiltzen da. Batzuetan, neoinpresionisten eta nabien lanak ere sinbolistak direla esaten da, lantzen dituzten gai eta forma bitxiak direla eta; Maurice Denisek, adibidez, erlijiozko gaiak eta alegoriak irudikatzen zituen, lerro makurrez eta eremu lauez baliatu, eta gainazalak erabat estaltzen zituen. Izatez, Sinbolismoarekin lotu izan ditugun artista batzuek ez zuten beti haien burua halakotzat jotzen. Artista garrantzitsuenetako bat Odilon Redon izan zen. Haren lanetan gorputzik gabeko buru hegalaria, arma arma maltzurak eta errealitateetik deslotutako eta esanahi enigmatikoko agertoki isilak ageri dira, guzti-guztiak estilo sinbolistarekin oso lotuak.

Sinbolismoarekin zerikusia zuten artista gehienek materialismoa arbuia zuten eta zientziarekiko fedea galdua zuten, ez baitzen gizarte modernoaren gaitzak arintzeko gai izan. Horren ordez, irudi iradokitzaile eta onirikoen bitartez espiritualtasuna eta barne-aldartea ikertzea aukeratu zuten, eta dekorazio-estiloak blaitu zituen haien lanak, *Art Nouveau*-ren diseinu organikoetatik eta arabesko formatatik edanaz.

Arte sinbolistak narrazio mitikoak, erlijiozko gaiak eta amesgaiztoen mundu makabroa besarkatu zituen; hala, faktikoa zena fantastikoarekin ordeztu zuten, kanpoko mundua paisaia psikologikoarekin, materiala espiritualarekin eta zehatza etereoarekin. Narrazioan sakonki erroturik egon arren, Sinbolismoak sentsazio abstraktuak sorrarazi nahi zituen eta, irudi subjektiboen bitartez, esperientzia unibertsala adierazi. Bulkada horiek modernotasunaren alde ilunak sorrarazi zuen irrika bati erantzuten zioten: garrantzitsua den horren bilaketari, hain zuzen.

307 aretoa: Nabiak eta grabatuaren kultura 1890ko hamarkadan

Grabatuaren teknika, hala litografia nola egur gaineko grabatua, 1890eko hamarkadan ernaberritu zen Frantzian, Arte Ederren Eskolan egin zuten estampa japoniarren erakusketaren ondorioz. Birsortze hori nabiek eta Henri de Toulouse-Lautrec artistak eragin zuten. Nabien taldea (hebreerazko “profeta” hitzetik dator) anaidi bat zen, eta Paul Gauguin-en Sintetismoaren antzeko koloreko planoen eta trazuen antolaeraren eragina izan zuen, baita grabatu japoniarren delineazio bortitzen eta bi dimentsioko konposizioen eragina ere. Nabiek astoa alde batera utzi eta askotariko baliabideak erabiltzeari ekin zioten: grabatuak, posterrak eta ilustrazioak, adibidez. Lan horiek Thadée Natanson-en *La Revue blanche* egunkarirako egiten zituzten, besteak beste.

Grabatuaren teknikaren askatasunak erakartzen zituen artista horiek: herri-arte zen eta, beraz, pinturan agintzen zuten arau akademikoetatik salbuetsita zegoen. 1890eko hamarkadan, artistek egur gaineko grabatuen kontraste bortitzak eskaintzen zituen aukerak aztertu zituzten; Félix Vallottonek, adibidez, zuria eta beltza asmamen handiz erabili zituen Parisko gizartearen gaineko iruzkin garrantzak egiteko. Beste nabi batzuk, hala nola Pierre Bonnard eta Édouard Vuillard,

liluratuta zeuden kolorezko litografiarekin, eta teknika horren mugak hamaika modutan aztertu zituzten —prozesua manipulatu ere egin zuten—, grabatuen arloan maisu zen Auguste Clot-ekin.

Artista horiek kartel eta aurkezpen ugari egin zituzten arte-merkatarien aginduz; horien artean garrantzitsuenetako bat Ambroise Vollard galerista izan zen. Toulouse-Lautrecek kartelaren artean egin zuen ahalegin handiena, eta hiriko errealitatearen irudikapen zorrotzak egin zituen, beharbada nahiko erredukzionistak. Artelan handi, erakargarri eta zoragarri horiek Parisko kaleetan jartzen zituzten iragarki iragankorrak ziren. Bizitza bohemiarren karikatura antzeko irudikapenek oinezkoak (kontsumitzaile potentzialak) xarmatzen zituzten: Montmartreko kafe-kontzertuak eta aktore ospetsuak, La Goulue (tripontzia) eta Jane Avril barne. Estampa eta kartel horiek ospatzen zuten bizimodu alai eta maiz ezohiko hori Parisko mende amaierako bizimoduaren irudi bihurtu zen.

ERAKUSKETAREN DIDAKTIKA

Didaktika proiektuak erakusketako edukiak osatzeko aukera eskaintzen die bisitariei, heziketa-espazio eta jarduera berezien bitartez.

Eremu didaktikoa

Eremu didaktiko horretan, XIX. mende amaierako Parisko azken hamarkadetako testuinguru sozial, politiko eta kultural nahasia dago azaltzen da. Garai hartan, prentsa izan zen informazioa zabaltzeko eta iritzi publikoa sortzeko eta lantzeko giltza. Horregatik, eremu didaktikoko dokumentazioa titular moduan, alegia joera eta gertaera garrantzitsuen kronika gisa, aurkeztuta dago: borroka politikoak, gizarte-klaseen ezegonkortasunak eragiten zuen gero eta larritasun handiagoa, kabareten gero eta ospe handiagoa eta azken garapen zientifikoak. Horiek guztiak dira garai hartako une sortzaile eta intelektualaren hondo-oihalaren osagaiak.

Horren guztiaren osagarri gisa, jarduera interaktibo bat prestatu dugu: mende amaierako Parisen mapa bat jarri dugu, bisitariak hiriko tokiak eta gertakari eta obra garrantzitsuak ezagutu ditzaten.

Jarduerak

- Vivien Greene-ren eta Cornelia Homburg-en arteko elkarrizketa (maiatzak 10).
Vivien Greene eta Cornelia Homburgmende amaierako Parisko arteari eta artistei buruz arituko dira. Lehena *Paris, fin de siècle* erakusketaren komisarioa da, eta bigarrena Washingtoongo Unibertsitateko Art Gallery ezaguneko kontserbatzailea eta XIX. mende amaierako arte frantsesean aditua.
- Zinema klasikoaren proiektzioak eta musika zuzenean (maiatzak 27 eta ekainak 3)
Saio horietan Lumière anaien eta Georges Méliès-en lehen grabaketa zinematografikoetako batzuk proiektatuko ditugu, disc-jockey batzuek, besteak beste Esteban Lahozek, binilo-musika zuzenean jartzen duten bitartean.
Ziklo hori Vinyl Lovers Films etxearekin batera antolatu dugu.
- Ikastaroa, *Ezagutu mende amaierako melodia frantsesak* (maiatzak 16, 23 eta 30, ekainak 8, 13 eta 20 – Museoaren Lagunentzat soilik)

Bilboko Elkarte Filarmonikoarekin elkarlanean antolatutako ikastaroa. Teresa Merino Guereñu izango da irakaslea, eta erakusketara bisita eta Elkarte Filarmonikoak antolatutako musika-emanaldia ere barne daude.

Hausnarketa partekatuak

Museoko profesionalak egiten dituzten bisita horietan, bisitariak muntaiaren zirrikituak eta erakusketaren beste bitxikeria batzuk ezagutu ditzakete.

- Arte arduradunaren ikuspegia: Manuel Cirauqui arte arduradunarekin (maiatzak 24)
- Kontzeptu nagusiak: Hezkuntza eta Interpretazioko zuzendariorde Marta Arzakekin (maiatzak 31)

Babeslea: Vizcaína Aguirre fundazioa.

Espres bisitak

Doako espres bisitetan, eduki artistikoak modu zehatz eta dinamikoan ematen ditugu ezagutzera.

Azaleko irudia

Henri de Toulouse-Lautrec

Jane Avril, 1899

Koloretako litografia

55,5 x 37,9 cm

Bilduma pribatua

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketineko Saila

Tel: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao-corp.eus

Guggenheim Bilbao Museolari buruzko informazio guztia hemen duzu eskuragarri:

www.guggenheim-bilbao.eus (prentsa arloa)

Prentsa irudiak:
Paris, mende amaiera: Signac, Redon, Toulouse-Lautrec eta garaikideak
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

Pierre Bonnard

Ikuzle txikia (La petite blanchisseuse), 1896

Koloretako litografia

29,3 x 19,6 cm

Bilduma pribatua

© Pierre Bonnard, VEGAP, Bilbo, 2017



Henri-Edmond Cross

Paseoa edo Zipresak (La Promenade ou Les cyprès), 1897

Koloretako litografia

irudia: 28,3 x 41 cm

orria: 43 x 56,8 cm

Bilduma pribatua



Maurice Denis


Apirila (Anemonak) [Avril (Les anémones)], 1891

Olio-pintura mihise gainean

65 x 78 cm

Bilduma pribatua

© Maurice Denis, VEGAP, Bilbo, 2017



Camille Pissarro

Éragnyko Delafolie adreilu fabrika (La Briqueterie Delafolie à Éragny)

1886–88

Olio-pintura mihise gainean

58 x 72 cm

Bilduma pribatua



Achille Laugé

Arbola loretan (L'arbre en fleur), 1893

Olio-pintura mihise gainean

59,4 x 49,2 cm

Bilduma pribatua

© Achille Laugé, VEGAP, Bilbo, 2017



Maximilien Luce

Londreseko ikuspegia (Cannon Street) [Vue de Londres (Cannon Street)], 1893

Olio-pintura mihise gainean

65 x 81 cm

Bilduma pribatua

©Maximilien Luce, VEGAP, Bilbo, 2017



Paul Signac

Saint-Tropez, Fontaine des Lices, 1895

Olio-pintura mihise gainean

65 x 81 cm

Bilduma pribatua



Théophile-Alexandre Steinlen

Chat Noir, konpainia txit ospetsua (La très illustre Compagnie du Chat Noir), 1896

Litografia

62 x 39,5 cm

Bilduma pribatua



Henri de Toulouse-Lautrec

Jane Avril, 1899

Koloretako litografia

55,5 x 37,9 cm

Bilduma pribatua



Paul Ranson

Herio eta dontzeila (La jeune fille et la mort), 1894

Grafitoa eta ikatz-ziria paper gainean

55,2 x 33 cm

Bilduma pribatua



Odilon Redon

Pegaso (Pégase), Ca. 1895–1900

Pastel sobre papel

67,4 x 48,7 cm

Bilduma pribatua



Théo Van Rysselberghe

El molino de Kalf en Knokke o Molino en Flandes (Le Moulin du Kalf à Knokke or Moulin en Flandre), 1894

Olio-pintura mihise gainean

80 x 70 cm

Bilduma pribatua



Félix Vallotton

El extranjero (L'étranger), 1894

Xilografía sobre papel

22,4 x 17,9 cm

Bilduma pribatua



Georges Seurat

Portera (Concierge), 1884

Lápiz conté sobre papel

32,3 x 24,5 cm,

Bilduma pribatua



Édouard Vuillard

Bécane, 1894

Koloretako litografia,

80 x 60,5 cm

Bilduma pribatua

©Édouard Vuillard, VEGAP, Bilbo, 2017

